

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	TELEBISTA: EKIPOAK ETA FORMATUAK	Iraupena	80
		Espezifikoa	
Kodea	UF0095		
Lanbide-arloa	IRUDIA ETA SOINUA		
Lanbide-eremua	Ikus-entzunezkoen produkzioa.		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Telebistako errealizazioko laguntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Telebistako errealizazioko eszenan jartzea eta preproduziko prozesuak	Iraupena	140
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Preproduzioa telebistako errealizazioan	Iraupena	60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0216_3 TELEBISTAKO PRODUKZIO BATEN ERREALIZAZIO BATEN, JOKAESPASIOAREN ETA KOKALEKUETAN ESZENAN JARTZEAREN GARAPENA KOORDINATZEA gaitasun-ataleko LB1 eta LB3 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Telebistaren eta haren ikus-entzunezko produktuen oinarriko ezaugarriak aztertzea.

- EI1.1 Telebista-kate jakin baten organigramatik abiatuz, departamentu edo atal bakoitzaren oinarriko funtzioak ezagutzea, eta giza baliabideak identifikatzea.
- EI1.2 Ikus-entzunezko produkzioaren faseak deskribatzea: telebistako programa baten preproduzioa – produkzioa – postproduzioa.
- EI1.3 Ikus-entzunezkoaren produkzioaren fase bakoitzean erabiltzen diren ekipo teknologikoak identifikatzea, eta haien ezaugarriak deskribatzea.
- EI1.4 Europako sailkapenari jarraikiz, telebistako askotariko programak ezagutzea, baita zuzeneko programen, aurrez grabatuen, zuzeneko faltsuen eta beste batzuen ezaugarriak ere.

A2: Telebistako errealizazioan erabiltzen diren ekipo teknikoak eta materialak aztertzea.

- EI2.1 Telebistako kameraren eta ENG ekipoen, euskarrien, optiken eta haien osagarrien (iragazkiak, telehitzemailea eta beste) ezaugarriak deskribatzea.
- EI2.2 Argiztapen-ekipoak eta haien osagarriak prestazioen arabera deskribatzea eta identifikatzea.
- EI2.3 Soinu-ekipoak eta -materialak prestazioen arabera deskribatzea eta identifikatzea.
- EI2.4 Irudiaren kontrol tekniko ekipoak (CCU, bektoreskopioa, MFO) deskribatzea, eta prestazioen arabera bereiztea.
- EI2.5 Errealizazioko kontrol-ekipoak deskribatzea: monitoreak, magnetoskopioak, idazkun-makina, nahasketa-mahaiak. Prestazioekin lotzea.
- EI2.6 Bideoak grabatzeko eta erreproduzitzeko ekipoen oinarriak deskribatzea, eta grabazio-formatuak ezaugarrien arabera sailkatzea.
- EI2.7 Unitate mugikorren ezaugarriak eta prestazioak deskribatzea.

A3: Hizkuntza-elementuak eta ikus-entzunezko kontakizuna aplikatzea telebistako errealizazioan.

- EI3.1 Telebistako askotariko produkzioen azterketatik abiatuta (fikzioa, albistegia, dokumentala eta magazina), hauek identifikatzea: irudiaren eta soinuaren sinkronizazioa, soinu-girotea (sintonia, kareta, efektuak, musika), soinuaren adiera espresiboa, soinuaren hartualdiaren konplexutasuna eta emandako tratamendua.
- EI3.2 Telebistako askotariko fikzio-programen azterketatik abiatuta, generoak eta haien ezaugarri espresiboak, produkzioa girotzeko erabilitako espazioak eta eszenografia-elementuak, irudi eta soinuaren efektu bereziak eta garatutako ekintzako sarrerak identifikatzea.

A4: Ikus-entzunezko produkzio baten errealizazioak sortzen dituen gidoi teknikoak eta dokumentuak egitea.

- EI4.1 Albistegi baten gidoitik abiatuta, hura errealizatzeko behar diren dokumentuak prestatzea:
 - o Banakapena egitea: eszenaka, iraupen estimatua, parte-hartzaileen izenak, kameraren banaketa eta mikrofonoen banaketa adieraziz.
 - o Kameraren plangintza egitea: kameraren kokapena eta esleitutako planoak, plano-kopurua eta haien tamaina, kamera-mugimendua.
 - o Eszenak, sekuentziak edo blokeak lotzeko moduak (etena, gortinak, barne- edo -kanpo mugimenduak planoan, eta beste).
 - o Programari hasiera eta amaiera emateko musika, soinu-girotea, hitzen eta irudien arteko lotura.
 - o Txertatutako planoak eta beste.

EI4.2 Telebistako fikziozko lan baten produkzio baten suposizio praktiko bat abiapuntutzat hartuta:

- Gidoiaren dokumentu teknikoak egitea: gidoia, gidoi teknikoak, banakapen-orriak.
- Pertsonaien deskribapen fisiko-psikikoa egitea (karakterizazioak, jantziteria, makillajea, orrazkera).
- Kokaleku egokienak identifikatzea, produkzioaren aurrekontuari jarraikiz.
- Dekoratuaren eskaleta egitea: girotzea, kolorea, atrezzoaren ezaugarriak.
- Gidoiaren banakapena egitea: dekoratuaren planoak, kameraren planoak, eszenen jartzea.
- Lanerako plana, kamera-partea, grabazio-eskaleta eta minutajeak prestatzea.

EI4.3 Barietateen programa baten produkzioaren suposizio praktiko bat abiapuntutzat hartuta:

- Gidoiaren dokumentu teknikoak egitea: gidoia, gidoi teknikoak, banakapen-orriak.
- Produkzioarako behar diren baliabide material eta teknikoaren kalkulua egitea, baita errealizazioan parte hartu behar duten giza taldeena ere.
- Kokaleku egokienak identifikatzea, produkzioaren aurrekontuari jarraikiz.
- Dekoratuaren eskaleta egitea: girotzea, kolorea, atrezzoaren ezaugarriak.
- Gidoiaren banakapena egitea: dekoratuaren planoak, kameraren planoak, eszenen jartzea.

A5: Gidoiaren dokumentua eta ematen duen informazio lagungarria aztertzea, kameraren mugimenduaren plangintza egiteko.

EI5.1 Hainbat motatako telebista-programa batzuen gidoiaren ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauden kasu praktiko batean, pertsonaiak, parte-hartzaileak eta beste identifikatzea.

EI5.2 Produkzio-mota bakoitzean sortzen diren dokumentuak aztertzea eta bereiztea: dramak, albistegiak, dokumentalak, barietateak, kirol-emanaldi ohikoak.

EI5.3 Zenbait sekuentzia ikusiz, hainbat generotako fikziozko zenbait produkzioaren estetika bisuala aztertzea:

- Plangintza (kameraren kokapena, angeluazioa eta mugimenduak).
- Eszenografia.
- Argiztapena, eta argiztapen-efektu bereziak.
- Soinu-girotzea eta soinu-efektu bereziak.
- Bideo-efektuak.

EI5.4 Hainbat albistegi-ereduren irudi, audio-grabazio eta elementu grafikoaren beharrak identifikatzea, gidoiaren jasotako zehaztapenei jarraikiz.

EI5.5 Programa jakin bat errealizatzeko zer material bisualak eta soinu-material behar diren identifikatzea, deskribatzea eta ebaluatzea, gidoiari eta errealizazioaren helburuei jarraikiz.

EI5.6 Grabazio-eskaleta osatzea, gidoiaren eta programa baten ikustetik abiatuz: albistegia, dokumentala, magazina, drama.

EI5.7 Ikus-entzunezko produkzio baten gidoiaren eta eskaletatik abiatuz, produkzio hauetarako kokaleku egokienak identifikatzea: albistegia, dokumentala, magazina, drama.

EI5.8 Fikziozko produkzio baten gidoi bat aztertuta, produzitzeko behar diren baliabide materialen eta teknikoaren kalkulua egitea, baita errealizazioan parte hartu behar duten giza taldeena ere.

EI5.9 Drama baten gidoiaren banakapenetik abiatuta, eszena-plan egokiena egitea: eszenografia-giroa (kokalekuak, dekoratuaren deskribapena, estiloa, kromatismoa, atrezzoaren ezaugarriak); pertsonaien deskribapen fisiko-psikikoa (karakterizazioak, jantziteria, makillajea, orrazkera); kameraren kokapena eta mugimenduak; makina-motak; argiztapen- eta soinu-ekipoak; argiztapen- eta soinu-efektu bereziak; bideo-efektuak edizioan; grafismoa.

Edukiak

1. Ikus-entzunezkoen produkzioa: telebista.

- Telebistako produkzio-prozesuaren faseak eta garapena.
- Telebista-enpresen egitura, titulartasunaren, estalduraren eta programazioaren arabera.
- Telebista-etxeak eta -estudioak.
- Titulartasuna eta kontrol-formak.
- Programen egitura.
- Telebista-etxe baten organigrama tipoa: arloak eta departamentuak.
- Telebista-estudioak. Balio erantsiko zerbitzuak.
- Programa-tipologia. Europako sailkapena.
- Ikus-entzunezko beste produktu batzuk: publizitatea, doitze-grafikoak, trantsizioak.
- Telebista-programen bilakaera, enpresa- eta gai-ezaugarrien eta ezaugarri teknikoaren arabera.

2. Ikus-entzunezko hizkuntza.

- Plano-tipologia.
- Kamera-mugimenduak.
- Irudiaren konposizioa eta enkoadraketaren teknika.

3. Ikus-entzunezko hizkuntza narratiboa.

- Espazioaren eta denboraren irudikapena. Harremanak.
- Jarraitutasuna edo raccorda. Ardatz-jauzia.

- Sekuentziak egitea. Telebistako eszenan jartzea eta eszenografia. Eszenan jartzearen plangintza.

4. Gidoia.

- Egitura narratiboa. Gidoiaren faseak: ideiatik gidoi teknikora.
- Telebistako eszenan jartzea eta eszenografia. Eszenan jartzearen plangintza.
- Sortutako dokumentuak: emanaldiaren parteak, banakapen-orriak, VTREN zerrendak, etab.
- Ikus-entzunezko gidoi-motak eta -formatuak (fikzioa, erreportajea, dokumentala). Gidoiaren banakapena. Pertsonaien eta parte-hartzaileen tipologia.
- Irudi-gidoia. Gidoiak egiteko programak eta softwareak.
- Grabazio-eskaletaren osaera.

5. Irudi-formatuak. Grabazio-ekipoak. Ezaugarriak.

- Betacam SP bideoa.
- Digitalak: XD Cam, Betacam digital / Digital -S, Betacam SX, Betacam IMX, DVCPRO25, DVCPRO50, DVCPROHD, DVCAM, XDCAM, MiniDV, etxeko DVDa, konpresio digitala, eta bideo digitaleko formatuak, MPEG2, DV, .avi, eta beste. Datorren telebista: HDTV (bereizmen handia), eta grabazio- eta emanaldi-formatuak.

6. Soinu-formatuak. Ezaugarriak.

- Euskarri analogikoak eta digitalak.
- Soinua hartzea.
- Soinu digitalaren eta analogikoaren grabazioa.

7. Irudi elektronikoa.

- Bideo-seinalea. Arakapen gurutzelarkatua.
- Telebista-linea.
- Bideo-seinaleen neurria.

8. TB sistema analogikoa eta digitala.

- Kolore-bereizketen seinaleak, U eta V.
- Krominantzia-seinalea.
- PAL, NTSC eta SECAM sistemak.
- Neurketa-ekipoak: bektoreskopioa eta MFO. Seinale digitala.
- Irudiak konprimatzeko sistemak. MPEG. Irudien laginketak egiteko sistemak.

9. Telebista-kamera eta CCU.

- Optika eta argiaren harrera. Ikusangeluak.
- Kamera digitalaren formatuak.
- Kamera-kontrola, eta CCU: diafragma eta obturadorea; tenperatura, kolorea, zuri-balantzea eta beltz-balantzea zuzentzeko iragazkiak; gamma eta kneeren zuzenketa, irabazia.
- Eremu-sakonera/distantzia hiperfokala. Mugimendu-efektuak.
- Hautazko fokuratzea.

10. Errealizazioan erabiltzen diren ekipo teknikoak eta bitarteko materialak:

- Errealizaziorako eskuragarri dauden bitarteko teknikoak.
- Bitarteko lagungarriak: garabiak, kamera robotizatuak, grabazio-garabiak, steadicama eta beste.
- Errealizazioko kontrol-ekipoak: monitoreak, magnetoskopioak, layout bideo-zerbitzariak, idazkun-makinak, nahasketa-mahaiak eta beste.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Telebistako errealizazioko laguntza